



213. ZENBAKIA. EURO BAT  
2012ko IRAILA

[www.baleike.com](http://www.baleike.com)



## ZUMAIA ETA OLAGARROA



“Zumaia eta  
olagarroa” liburua  
bi euro merkeago  
BALEIKEREkin.  
Kupoa barruan

Zumaiarrek olagarroarekin  
historian zehar izan duten lotura  
estua aztertu dute liburu batean.





Kalitatezko  
produktuak

Gipuzkoako  
Okelaren  
Ziurtagiria:  
GI-OKELA

# Juanjo Larrañaga harategia



BURUALDEA  
3.95€

BASERRIKO TXERRIAREN  
BURUALDEA  
4.95€

BASERRIKO TXERRIAREN  
SAIHESKIA  
4.90€

ZUMAIA  
Basadi auzategia, 4. Tel./Faxa: 943 860 621

ZARAUTZ  
Salegi kalea, 14. Tel./Faxa: 943 890 215

# BALEIKE 213

AZALA J. Carballo



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkarte

e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea: Agustín Zubimendi eta

Xabier Azkue.

Erredakzio taldea: Imanol Azkue, Ainara Lozano

Lasa, Aitor Manterola, Juan Luis Romatet,

Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio, Jon

Urbietan eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

agustinzubimendi@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**TOKIKOM**

6

baleike +

## OLAGARROAK ZUMAIAN HAMAIKA ERRO DITU

5

bertso xorta  
AGUR, BELEN

19

elkarrizketa  
AINTZANE URBIETA  
ETA JOKIN GIJARRO  
ARRAUNLARIAK

24

erreportajea  
ARTADIKO ESKOLAREN  
AZKEN IKASGAIA

30

agenda  
OLARRO EGUNA

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaia Udal



“Zumaia eta olagarroa”  
liburua bi euro merkeago  
kupoi hau aurkeztuta.



Kupoi bakarra liburu bakoitzeko





**Arrain eta mariskoak**

**Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak**

7 MARES izoztuak

Zuloaga plaza, 1  
tel. 943 862 309



Alai auzategia 8  
20750 Zumala (Gipuzkoa)

Diseinu zerbitzuak  
tel.: 943 14 31 22

a3 kopia eta diseinu zerbitzuak  
a3zumala@terra.es

Kopiak eta materiala  
tel/Faxa: 943 14 31 20



**L I B R R U D E N D A**

**AIZPURUA**

Aita-Mari auzategia, 17  
tel. 943 861 569



**ALAI BERRI**  
supermerkatuak

Asteleheneetik igandera 08:00etatik 15:00etara  
eta 17:00etatik 22:00etara, urte guztian.

Etxera banaketa doan

Alai auzategia, 3 • 943 118 394

**ALBERDI**  
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188  
943 143261



*Paladar dulce, corazón sano*

*Aho bete gogo, bilhotz bete osasun*



**ALGORRI**TABERNA

ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA



**ANA**  
ETXeko ZAPIAK

Ignacio Zuloaga enparantza  
tel. 943 861 157 [anaetxeokozapiak@telefonica.net](mailto:anaetxeokozapiak@telefonica.net)



**D'Ana**

ILEA PAINDEGIA

Kantauri plaza, 6. behea tel. 943 117 408

**Ardantzabide**  
ALTZARIAK-AROZTEGIA

[www.ardantzabide.com](http://www.ardantzabide.com)


Erakusketa. Hego kalea, 4-5  
Denda: Txomin Agirre, 4 Aroztegia: Santiago, 40  
Tel.: 943 862 532 Tel.: 943 861 631

**ARGISUN**  
ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Girozea
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5  
tel. 943 861 995

[www.argisun.com](http://www.argisun.com)  
[info@argisun.com](mailto:info@argisun.com)



**OKINDEGIA**  
Arkupe

Nagusia, 2 - tel. 943 501 501  
ZUMAIA

**OGI-EDER**



**ARRUTI**  
Baltasar Etxabe 2/9  
Zumaia 943016429



**AUTOS ZUMAIA**

Urola plaza, 3-5 tel. 943 861 485



**Bakun**  
ITZULPEN ETA ARGITALPEN  
ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25  
20749 Arroa tel./faxa 943 148 306  
[bakun@euskalnet.net](mailto:bakun@euskalnet.net)



**Basadi albaitaritzza**

Ribaitario  
Itaki Garmendia

Basadi, 7. behea - tel. 943 143 310  
[www.basadiclinicvet.com](http://www.basadiclinicvet.com)

Golez: 11-13 / Arrabaldiz: 16-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatean itxia

Lamiakelarsko: 605 728 737 Etxez ebeko zerbitzua

**BASUSTA**  
ERRETEGIA



Patxita Etxezarreta, 25 tel. 943 862 073



**Braky's**  
Okindegia Katedegia

Izaga kalea, 2  
20750 Zumala (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 57 07 79  
Móvil: 649 967 289

# Agur, Belen

Doinua: "Gogoratuko zara" (Oskorri)



## 1.

**A**lgorrira ekarri  
gaituen pausoaz  
zer ikusten da Belen  
burua jasoaz  
ingurauta lagunez  
sendiz, itsasoaz  
haizeak belarrekin  
egiten du jolas  
ingurauta lagunez  
sendiz, itsasoaz  
maitatua zatoz ta  
maitatua zoaz

## 2.

**B**eti zendun keinu bat  
herriarengana  
ez da errez laburtzen  
Belen zu zerana  
hizkuntzaren zaintzaile  
laguna ta ama  
beti ixilik-ixilik  
egin dezu lana  
hizkuntzaren zaintzaile  
laguna ta ama  
gurekin gelditzen da  
emandako dana

## 3.

**A**gurrak hola dira  
bat joan ondoren  
beti izan zera zu  
garbi eta garden  
ikusid egu zure  
bihotz hori zer den  
gure maitasunean  
hartazazu atsedean  
ikusid egu zure  
bihotz hori zer den  
asko maite zaitugu  
muxutxo bat Belen





# OLAGARROAK ZUMAIAN HAMAIKA ERRO DITU

Ezaguna da Zumaia eta olagarroaren arteko harreman estua, baina gaiari buruzko azterketa sakonik ez da argitaratu gaur arte. Hutsune hori betetzera dator *Zumaia eta olagarroa* liburu ederra.

TESTUA: GORKA ZABALETA

ARGAZKIAK: ZUMAIA ETA OLAGARROA LIBURUA





**H**erriko elkarte gastronomiko bati ematen dio izena, eta eskubaloi taldeari. Zopan edo patatekin prestatzeko ohitura daukagu, eta lehiaketa gastronomikoak ere antolatzen ditugu. Hura arrantzatzea da zumaia askoren denborapasa gustukoenetakoa. Olagarrozale mitikoak ere baditugu; eta haiek harrapatutako aleen tamainaz eta kopuruaz hamaika istorio. Jaiegun handia egiten dugu bere izenean: Zumaiaiko ikurretako bat bihurtu dugu olagarroa.

Jakin, ordea, nahi baino gutxiago dakigu olagarroez eta Zumaiaik harekin izan duen harremanaz. Galdera gehiegi airean: noiztik arrantzatzen da olagarroa? Nondik dator lehortzearen ohitura? Zergatik mantendu da Zumaian? Zertarako arrantzatu izan da? Nork? Nola? Nolako animalia da olagarroa? Erantzunak aurkitzea izan da, hain zuzen ere, *Olagarroa eta Zumaia* liburuko egileen erronka. Udalak deitutako bekari helduta, ikerketa lan sakona egin dute Javier Carballok, Inaxio Manterolak, Oihana Artetxek, Xabier Alberdik eta Imanol Azkuek: hamaika elkarrizketa, dokumentu zahar eta iturri erabili dituzte idazteke zegoen historia aberatsa behingoz paperean jasotzeko.

#### Historiaurretik datorren ohitura

“Inguruko herriekin alderatuta, Zumaiaik duen berezitasunik nabarmenena geologikoa da: harraldea bera. Getariak, Zarautzek edo Oriok ez dute horrelako zabalgunerik”, dio Xabier Alberdi historialariak. “Olagarroari zuloz jositako harraldeak







JAVIER CARBALLO

## HARRALDEA

Zumaia eta Deba arteko harralde zabala leku paregabea da olagarroentzat.

gustatzen zaizkio, babesteko”, osatu du Inaxio Manterola biologoak, “eta horixe aurkitu du gure harraldean”. Baina harralde egokiak badaude oso urrutira joan gabe –Bizkaian edota Lapurdin–, eta han ez dago olagarroarekiko hain lotura esturik. Beraz, geologiak ez du dena esplikatzeko, eta arrazoi historikoa eta kulturalak ere badaude. Arrazoi horiek aurkitzea izan da, hain zuzen ere, Xabier Alberdi eta Oihana Artetxe historialarien lana. Eta ez da batere erraza izan, “informazio iturri faltagatik”.

Bi arazorekin egin dute topo: “Batetik, olagarroak oskolik edo hezurrik ez duenez, ez du aztarnarik uzten. Beraz, arkeologiaren ikuspuntutik arazo bat da. Bestetik, itsas ekonomia berruan ez da sekula izan goi mailako harrapakina, eta, ondorioz, apenas dago dokumentaziorik. Beraz, ia informazio iturririk gabe aurkitu gara”. Hutsune horri aurre egiteko, zeharkako iturriak erabili behar izan dituzte, eta handik eta hemendik lortutako ekarpenak uzta. “Adibidez, arkeologiaren kasuan, bagenekien historiaurrean gizakiak harraldera etortzen zirela arrantzara, lapen eta magurioen oskolak aurkitu direlako kobazuloetako aztarnategietan... Lapak eta magurioak hartzen bazituzten, olagarroak zergatik ez? Gainera, ohartu gara haragi gehien eskaintzen duten itsaskiak zituztela gogokoen... Olagarroak baino haragi gehiago eskaintzen duenik ez dago”.

Olagarroaren arrantza historiaurretik datorrela defenditzen dute, beraz, Alberdik eta Artetxek.

### Lehortzeko teknika berezia

Olagarroa lehortzeko ohitura da Zumaia-Deba arteko olagarrozaleen berezitasun bitxiaren bat. Ezaguna da arraina lehortzeko ohitura hainbat tokitan, eta olagarroak lehortzen dituz-

### ANIMALIA EDERRA

Azaleko kolorea eta itxura aldatzeko gaitasuna du.



XABI MINA

te Mediterraneoan eta Afrikako zenbait herrialdetan, baina ez Zumaian erabiltzen den teknikarekin: aurrena usteltzen uzten da, giharrak biguntzeko, eta ondoren lehortu. Teknika hau ere antzinatik datorrela uste dute Alberdik eta Artetxek: “Jaki asko harrapatzen baduzu, momentuan dena jan edo gordetzeko moduren bat behar duzu alferrik galduko ez bada. Harraldean bil daitezkeen itsaskien artean, kontserbatzeko aukera ematen duen bakarra olagarroa da. Kontuan izan historiaurrean ez zegoela eskabetxerik edota beste teknika landuagorik. Lehortu edo ketu, beste aukerarik ez zegoen orduan”.





## EGILEAK

*Inaxio Manterola, Xabier Alberdi, Oihana Artetxe, Javier Carballo eta Imanol Azkue.*

Denborarekin jakiak kontserbatzeko teknika berriak asmatu diren arren, Zumaian olagarroa lehortzen jarraitu da, eta gaur egun ere hala egiten da. Alberdi eta Artetxeren iritziz, Zumaian arraina ere lehortzeko izan den tradizioarekin lotura izan dezake. Ikerketan adibide interesgarriak aurkitu dute, gainera: “Zumaian tradizio handia egon da arrainak ere lehortzeko: kolaioa, adibidez. Baina azpimarratzekoa da XVIII. mendearen amaieratik aurrera mielkaren inguruan Zumaian garatutako industria, Jose Eizmendi bikarioari esker [ikus aparteko testua]. Tradizio horrek lagunduko zuen, agian, olagarroa lehortzeko ohiturari eusten”.

### Emakumeak olagarrozale

Gaur egun ezagutzen ditugun olagarrozaleak hamarretik bederatzigizonezkoak dira; baina, Alberdik eta Artetxek bildutako datuen arabera, duela mende batzuk olagarroaren arrantza emakumeen lana zen. “Industrializazioaren aurreko gizartea erabat bes-telakoa zen. Gizona etxetik kanpo ateratzen zen dirua egiteko asmotan, zuloatik ateratzeko, etxearen jabe egiteko... Askok eta asko atzerrira joaten ziren, Ternuara, Sevillara... Kasu askotan, urteak egiten zituzten etxetik kanpo. Pierre de Lancre inkisidoreak, Donibane Lohizunera iritsi zenean, ez zuen gizonik aurkitu. Denak Ternuan zeuden. Eta ikusi zuen herriko ekonomia martxan zegoela, emakumeen esku. Bere logikan, hankaz gora zegoen gizarte hura; denak sorginak zirela erabaki eta 200 edo 300 erre zituen... Hau da, etxeko ekonomia,

egunerokoari aurre egiteko ekonomia, emakumearen esku gelditzen zen”.

Olagarroa ez da sekula izan arrantzarako lehen mailako harrapakina: Kofradiako liburuetan apenas agertzen da olagarroari buruzko daturik. “Harraldeko arrantza izanik, etxeko ekonomia osatzera, elikagaiak lortzera, zegoen bideratua. Beraz, emakumeen eta etxeko umeen kontua zen. Gizarte eredu hori errotik aldatu zen XIX. mendeko proletarizazioarekin. Gizonak jadanik ez du lan egingo kapitala sortu eta aurrera egiteko helburuarekin, irauteko izango da soldata. Hor erabat aldatzen da gizartea. Baina industrializazioaren aurretik olagarroaren arrantza emakumeen kontua zen”. Gerora,

XX. mendean, olagarroa lehortzea eta prestatzea izan da, batik bat, emakumearen lana.

Tesia nahikoa iraultzailea da, baina argudiorik ez zaie falta: “Hori baieztatzen duen dokumentu bat aurkitu genuen Tolosan, Gipuzkoako Korregidorearen auzitegiko artxibategian. 1716ko epaiketa baten berri ematen du, harraldean gertatu zen bortxaketa kasu baten ingurukoa. Dokumentuak informazio asko ematen du: nortzuk joaten diren olagarrotara, nondik jaitzen ziren, noiz egiten zuten arrantzan, zer harrapatzen zuten... Hor ikusten da gehienak emakumeak zirela. Dokumentu hori altxorra izan da guretzat, ikerketarentzat sekulako makulua delako. Informazio zuzena eman digu. Eta, bestetik, Zumaiako toponimian monumentu bat dago, Marianton, hain zuzen ere, harraldean arrantzan ari zela hildako emakumea”.

“Industrializazioaren aurretik olagarroaren arrantza emakumeen kontua zen”

## “Olagarroa 40 urte biziko balitz, itsasoko **nagusi**”

Dohain harrigarriak dituen animalia da. Ezagunak dira haien adimen garatua neurtzeko egin diren zenbait esperimentu; baina, oro har, gutxi dakigu olagarroaren biologiaz.

**Olagarroari buruz asko hitz egiten dugu Zumaian, baina animalia bera ez dugu, ziurrenik, behar bezala ezagutzen.**

Hala da. Adibidez, arra eta emea. Jendeak ez ditu bereizten. Herriko zaharrek-eta badakite arrak bentosa bat baduela besteak baino handiagoa, eta bere koban dagoenean horixe jartzen duela aurrean, babes modura. Gainera, garaiaren arabera, olagarroa zulotik ez denean sekula ateratzen, ez eta aurrean andarika jarrita ere, orduan badakite arrautzekin dagoen emea dela.

### Zenbat denbora bizi da?

Bixia da, denboraldi bakarreko animalia baita. Malakastak edo pixka bat denboraldiz kanpo jaiotakoak, agian, biziko dira 18 hilabete, bi urte gehienez. Beste guztiak urtebetean hiltzen dira. Eta kapaz dira bost kilo hartzeko, edo hamabost, duten janariaren arabera.

### Nola bizi dira jaiotzen direnetik heldutasunera iritsi arte?

Emea sartzen da bere kobazuloan, jartzen ditu kandelak, arrautzak, 100.000 eta 500.000 artean, eta kumeak jaiotzen ez du jaten. Han egongo da hilabeteberrogei egun geldirik, arrautzak zaintzen, ura hauspotzen korronea sortu eta oxigenoa emateko, usteldutakoak kentzen... Normalean udaberrian egiten dute kopula, eta ondoren emea kobazuloan sartzen da. Kumeak udan jaiotzen dira, eta txibiak bezala, planktonean –uretan flotatzen– bizi dira lehen 50 egunak. Gero, hondora joaten dira bizitzera eta, iraileko itsasaldiekin, harraldera sartzen dira. Eta handik aurrera ikaragarri azkar hazten dira. Gai dira hilabetean kilo bat gizentzeko. Jaten duten guztia proteina bihurtzen dute.

### Olagarroa haitzean bizi al da beti edo itsas hondoan ere bai?

Zuloak dituen haitza da beretzat bizilekurik egokiena, ezkutatzeko. Baina itsaso zabalean ere bizi dira, ehun metro arteko sakoneran. Hondarretan ere ibiltzen dira, baina norma-

lean beraien kobazuloa dute eta hara itzultzen dira, gordetzera. Mediterraneoko herriek antzinatik baliatu izan dute ezkutatzeko joera hori arrantatzeko: anforak botatzen zituzten itsas hondora eta olagarroak barruan sartzen ziren. Babeslekua zen haientzat. Anfora atera eta barruan gelditzen zen olagarroa, ez zuen ihes egiten. Gaur ere erabiltzen da arrantza sistema hori.

### Azala ingurura egokitzeko gaitasun harrigarria du. Nola egiten du?

Txiki-txikitatik dute gaitasun hori. Eta ezaugarri honekin bada- go, gainera, misterio bat. Begiko erretinan kono mota bakarra dute; beraz, teorian, zuri-beltzean bakarrik ikus dezakete. Nola du, orduan, inguruaren kolorea hartzeko gaitasuna? Pentsatzen da beste sentore batzuk izango dituela. Kolore aldaketa lortzeko kromatoforoak dituzte, azalean dituzten zelula berezi batzuk. Bakoitza kolore batekoa da (horia, gorria, urdina edo arrea) eta nahi bezala estutzen eta zabaltzen ditu –gure begiko ninia argira bezala–, nahi duen kolore nahasketa lortzen du. Txibiak ere berdin egiten du. Ia modu automatikoan funtzionatzen dute zelula horiek. Eta koloreaz gain, gaitasuna du giharrekin enorrek-eta ateratzeko. Hori oso baliagarria zaio algekin eta mimetizatzeko.

### Adimena oso garatua duen animalia omen da.

Olagarroak daukan arazoa da gutxi bizi dela. Olagarroa biziko balitz 40 urte? Itsasoko nagusi. Sei hilabetetan

“Kolore aldaketa lortzeko kromatoforoak dituzte, azalean dituzten zelula berezi batzuk”







### Adimena neurtzeko esperimentuak egin izan dira...

Bi olagarro. Bat ikusle eta bestea probatzaile. Probatzaileari bi bola eskaintzen zitzaizkion, bat zuria eta bestea gorria. Zuria aukeratzen zuenean, saritu egiten zuten; gorriarekin, deskarga elektrikoa. Saioa amaituta, ikusle zegoen olagarroa jarri zuten lanean: zuria bakarrik aukeratzen zuen.

Proba gehiago egin izan dira: labirintoak, adibidez. Edota botila baten barruan jatekoa jarri eta tapoiarekin itxi. Olagarroa hurbildu, ontzia aztertu, tapoia kendu eta janaria lortu. Hurrengoan, berdin baina erroskadun taparekin. Eta olagarroak zabaldu.

Teoria batek dio gizakia hasi zela burua garatzen eskuak libratu zituenean. Olagarroek sekulako ahalmena daukate: zortzi erro dituzte, bi mila bentosa, koordinatuta eta nahi dutena egiteko gaitasunarekin. Elefanteek tronparekin bezala. Bi mila bentosa horiek banaka kontrolatzeko gaitasuna dute. Orain honekin heldu, orain askatu... Hori oso konplikatu da.



### ARRAUTZAK ETA PARALARBAK

*Olagarro emea ez da kobazulotik ateratzen arrautzak zaintzeko saioan. Beheko argazkian, olagarro baten paralarba.*



IGNACIO SAN MIGUEL

### BEGIAREN MISTERIOA

*Erretinan kono mota bakarra dute eta teorian zuri-beltzean bakarrik ikus dezakete, baina inguruaren kolorea hartzeko gaitasuna dute.*

ikasteko duen gaitasuna ikaragarria da. Ornogabeen artean, hauek dira, nolabait esatearren, neurona guztiak konputagailu zentral batean elkartu dituzten bakarrik. Gure burmuinaren antzeko zerbait garatu dute. Memoria garatu dute, mapa bisualak egiteko gaitasuna... Eta, haginaz aparte, daukaten parte gogor bakarra hain justu buruan dute, bi begien artean, burmuin moduko hori babesteko. Bada, hain zuzen ere, hor egiten zaio kosk hiltzeko.

### Berez, oso animalia interesgarria da hazkuntzarako, baina orain arte ez da lortu. Non dago arazoa?

Oso ondo gizentzen da, oso ondo bizi da guk jarritako baldintzetan, arrautza pila egiten ditu, denak arazorik gabe jaiotzen dira, lehen astebetean ondo bizi dira... Baina hor zerbait dago, arazoren bat, lehen hilabete hori oso gutxi gaintzen dute. Plantonikotik bentonikora, hau da, uretan bizitzetik itsas hondorako pausoan hil egiten zaizkie gehienak. Hori argitu nahian dabilta, atzean sekulako negoziua baitago. Olagarroak dena du jateko, zenbat eta handiago, orduan eta garestiago, oso azkar hazten da, karioletan ez dauka gizentzen arazorik... Baina laborategian alebinak sortzeko arazo hori dago.

MUTRIKUKO INSTITUTUA

Bideoa:  
olagarroaren  
adimena



## BEDUA ITURGINTZA S.L

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Indurtegrunea, 9  
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa  
tel. 943 143 369

## EGOKI



Erloju  
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6  
tel. 943 861 787



## BEHEKO PLAZA

taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

**BERRITUA**

Eusebio Gurrutxaga plaza  
Tel. 943861700



## EKAIN

SAGARDO EKOLOGIKOA

www.ekainsagardoa.com • Tel.: 943 148 033



Erribera kalea, 6 20750 Zumala tel. 943 143 097  
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak  
Telekomunikazioak  
Informatika  
Internet



DIGITAL+



## ERNIO TABERNA

V. Arrate, 3

Tel. 943 860 045



**ERROTA**  
ORIL-OKINDEGIA  
SANTILXO AUZOAN, 32  
20750 ZUMAILA  
TEL: 943860000  
943860612  
FAX: 943860977  
errotat@errotta-okindegia.com

## ERTZ INFORMATIKA

Portatilak  
konpontzeko  
zerbitzu berria

Eskatu sarekontua  
konpromisorik gabe.  
**DOAN**



Beheko plaza

tel./faxa: 943 143 395



PAPER diseinu grafikoak

Roberto Gutierrez

696 211 111 • rgutierrez@rgutierrez.org • www.rgutierrez.org

## Galdona



burdindegia

Mendara marmela, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346  
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330

## GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057



**GAZTE, S.L.**  
ELEKTRIZITATEA

*Era gutietako instalazioak etxebizitza, pabiloi eta herriko argietan*

Trenbide pasealekua, 5. pabilioia

tel./faxa 943 143 402 mugikorra 610 262 617



kafetegia

Txomin Agirre kaia

Tel. 943862181



## GOIKO TABERNA

Erribera, 9

tel. 943 861 391

Ikastegi homologatua

## Goldan Gate

Institute  
hizkuntza eskola



Erribera kalea 1 bis, beheha  
tel./faxa 943 865 020  
goldengateinsti@telefonica.net





XVIII. mendearen amaieran krisi sakonean murgilduta zegoen kostako herrien ekonomia. Zumaian Jose Eizmendi bikarioak izan zuen ekimen berritzailea goraiatu dute Alberdik eta Artetxek.

“XVIII. mendeko Ilustrazio garaia aipatzen dugunean beti gogora etortzen zaizkigu Munibe eta enparauak. Jose Eizmendi Zumaiaiko bikarioak ez du haien sona, baina eragin zuzena izan zuen herriaren ekonomian. Munibek-eta egin zituzten saiakerak arrantzaren industrian: adibidez, Getarian Real Compañía Sardinera sortu zuten, baina porrot egin zuten. Nola-bait, gauzak teiltatutik hasita egin nahi zituztelako. Kanpotik berrikuntza batzuk ekarri eta hemen aplikatu. Arrantzako krisia gainditzeko pentsatu zuten konpainia bat sortzea, arazo guztiak gaindituko zituelakoan. Zer gertatu zen? Errealitatea-ekin talca egin zutela. Kofradietan antolatutako arrantzaleek etsai gisa ikusi zuten konpainia.

Eizmendik, berriz, justu kontrakoa egin zuen. 1776an, herriko ekonomia hondoa jota zegoela ikusirik, zaharregana jo zuen informazio bila, gazteak zirenean zer arrantza mota egiten zituzten galdetzeraz. Hala jakin zuen mielka harrapatu, lehortu eta Bilbora saltzen zutela. Artean aparejuri-rik ba ote zegoen galdetu eta, herriko lonja guztiak miatu ondoren, apareju zahar bat aurkitu zuten. Berriak eginarazi eta berriro mielkaren arrantza,

lehortzea eta salmenta martxan jarri zituen. Hau da, ikerketa antropologikoa egin zuen, teknikak berreskuratu, industria berriro martxan jarri eta merkatuak berreskuratu.

Gainera, mielkarekin lortutako irabaziekin beste arrantza batzuk sustatu ahal izan zituzten, bisiguarena, esate baterako, gero eskabetecean kontserbatzeko. Arrantza ekonomiaren sustatzailea izan zen, sekulako dinamika sortu zuena, herri mailatik hasita, bertako eredu batekin. Oso kasu interesgarria. Mielkaren industriak XIX. mendearen erdialdera arte iraun zuen”.



## Gerra ondorengo gosea

Javier Carballok bildutako testigantzen arabera, XIX. mendearen amaieratik XX. mendearen erdialdera arte batez ere baserritarrak (harraldetik gertu bizi zirenak) aritu ziren olagarroak harrapatzen haitzean. “Horren arrazoi nagusia da baserritarrek aukera handiagoa zeukatela komeni zitzaizenean baserriko lanak utzi eta itsasbeheran harraldera jaisteko; langile kaletarrarentzat zailagoa zen hori egitea, ordutegi zurrungoan menpe zegoelako lantokian”, azaldu du Carballok. Hala ere, kaletarrak ere moldatzen omen ziren, nola edo hala, olagarrotara joateko. Baina Gerra Zibilaren ondoren are gehiago nabarmendu zen joera: “Jendetza joaten zen harraldera, gosea kentzeko jatekoaren bila”.

## Belaunaldiz belaunaldi jasotako tradizioa

XX. mendeko olagarrozaleen bilduma osatzeko ikerketa lan handia egin du Javier Carballok. “Oso zaila da olagarrozale guztiak biltzea liburu batean, eta, ziur aski, aipatu beharreko bat edo beste geldituko zen sartu gabe. Jende askorekin hitz egin dut, eta irizpide simple batean oinarritu naiz: guztiak galdetzen nien, beraien iritziz, zeintzuk ziren olagarrozale aipagarrienak. Behin eta berriro agertzen ziren dozena bat

lagunen izenak: Jose Manuel *Ardantz*a, Erramun *Beltz*a, Pio Elosua, Jose Ramon *Pastorito*, Klaudio *Pikote*, Ebaristo *Akebarro*, *Etzenagusia*, *Kurrillua*... Eta ondoren neuk esaten nizkien izenak, eta haiek erantzun: ‘hura ere bai’, edo ‘bai, baina ez hainbeste, anaia gehiago...’. Galdeketa hori izan da nire lanaren muina. Baina seguru nago izen batzuek ihes egin didatela. Hori bai, azpimarratu nahiko nuke elkarrizketatu guztiak oso ondo hartu nautela eta denek erraztasun guztiak eman dizkidatela. Inork ez dit atea itxi, inork ez dit informaziorik ukatu”.

Jasotako lekukotasun horien emaitza da liburuaren zatirik mardulena: Zumaiaiko olagarrozaleen historia, familien arabera antolatuta, kasu gehienetan olagarrotarako zaletasuna etxean ikasitakoa baita. Olagarrozaleen testigantzak, gertatutako pasadizoak, bitxikeriak, argazkiak... XX. mendeko Zumaiaiko gizartearen zati garrantzitsu baten erradiografia zehatza.

## Gaur egungo arauak

Gerraondoko gose garaiak joan ziren, eta, herriko ekonomiak aurrera egin ahala olagarroak garrantzia galdu du etxe-ko ekonomian: jadanik ez da behar gosea kentzeko. Orain-

# Olagarroa harrapatzeko **teknikak**




Zumaiarrek olagarroa harrapatzeko bi era dauzkate: marketan eta kanaberarekin.

Algorritik Portutxikira bitarteko zabalgunean batez ere marketan aritzen dira arrantzan. Kanaberarekin, batez ere Itzurun, Inpernupe, Parolpe, Orroaga eta Planeria inguruetan; izan ere, inguru horietan haitzak handiagoak eta zapalak dira, olagarroak haitzen azpian sartzen dira, zuloetan, eta ez da hain erraza aurkitzea olagarroak utzitako arrastoak.

Bai marketan, bai kanaberarekin, olagarroa kateatzeko altzairuz egindako kako bat erabiltzen da. Muturretako batean, hagaxka okertuta dago, amu baten itxuran, eta bestean kirtena jartzen zaio, gehienetan egurrezkoa, eskuarekin heltzeko.

“Marketan” arrantzatzeko, olagarrozaleek arrastoak bilatzen dituzte, olagarroek zuloaren edo ezkutalekuaren sarreran uzten dituztenak: zulo barrura sartzeko, olagarroek hondarra edo harrixkak ateratzen dituzte eta kanpoaldean utzi, eta inguruan hamarren oskolak, lapen maskorak eta beste marisko batzuen hondarrak ere egongo dira, olagarroak digeritu ezin izan dituenak; horiek guztiak, “markek”, adieraziko dute olagarroa ez dabilela urrutu. Arrantzaleek kakoa zuloan sartzen dute, eta, mugituta, barruan olagarroak badagoen begiraten dute; baldin badago, kako batekin edo berekin kateatzen dute eta indarrez tiratzen diote, ateratzeko; hil ondoren, zakuan sartzen dute.

Kanaberarekin, berriz, bestela jokatzeko da. 1,80 zentimetro luze inguruko banbu-kanabera (Zumaian frantses kanabera ere deitzen diote) luze baten muturrean karnata jartzen da (hama-



## Olagarroa kateatzeko altzairuz egindako kako bat erabiltzen da

rra, arrain burua, oilasko hanka...) edo trapu zuri batek ere balio lezake; kanaberaren mutur hori haitzaren azpialdera sartzen da, olagarroa egon daitekeen zuloan; olagarroa han baldin badago, heldu egingo dio, erroekin harrapatzen saiatuko da; orduan, arrantzaleak kakoarekin kateatuko du eta uretatik aterako du. Olagarroa uretatik ateratakoan, komeni da eskuarekin heltzea, ez ihes egiteko.

Hainbat eratan hil daiteke olagarroa: hartu eta

haitzaren kontra behin eta berriz botata, begien artean daukan nerbioan kosk egin da, zapalduta, burualdeko poltsari buelta emanda...



ARGAZKIAK: JAVIER CARBALLO



**Marketan**

**Kanaberarekin**





“Zertarako harrapatzen dituzu **amarrazak?**”

Olagarrozaleak ez dira Zumaiaiko harraldean bakarrik ibili arrantzan, Bizkai eta Lapurdi aldean ere bai. Hona hemen Erramun *Beltzak* kontatutakoa:

“Ramon Mujika Martija, Erramun *Beltza*, gazterik hasi zen olagarrotan eta 72 urte bete arte jarraitu zuen arrantzan. Gaztetan, Elorriatik behera jaisten zen Erreketa aldea ingurura, bidezidor malkartsu batetik, eta heldua zenean Baratzazarretatik. Harrapatu zuen olagarro-rik handiena 4,800 kilokoa izan zen, baina normalean 1-2 kilokoak izaten ziren. “Olagarro asko sartzen zenean, marealdi bakoitzean, 30-40 harrapatzen genituen”. Askotan anaiekin (Hilario, Jose Joakin eta Juan Joserekin) gabarrantzara joaten zen, denak elkarrekin eta guztientzat kriseilu bakarrarekin; gogoan zuen behin baino gehiagotan karbururik gabe geratu izan zirela eta ilunpetan jarraitu zutela arrantzan. Hilario anaia Mutrikuraino ere joaten zen arrantzara, bizikletaz. Erramun Bizkai alde-raino ere joaten zen, Ispastera, motorrez, 30 urte baino gehiago iraun zion Ossa motor batean. Akordatzen zen behin baino gehiagotan, inguru hartakoek galdetzen ziotela: “Zertarako harrapatzen dituzu amarratzak?; non-bait, han inguruan ez zuten jaten olagarrorik”. Bizkaian olagarroari amarratza edo amarratea deitzen diote, hau da, hamar hatz edo behatz dituena. Behin batean, Ispasterretik etxera zetorrela, motorretik 27 kiloko zakua erori zitzaion, baina ez zen momentuan konturatu eta kilometro asko egin zituen aurrera; halako batean konturatu-ta, atzera buelta eman eta bide bazterrean aurkitu zuen. Igande goizetan Arroara jaisten zen eta olagarro freskoa saltzen zuen Marduetxeberri tabernan, Anita Urbietan eta Jose Zumetarenean, Tellendian. XX. mendeko 60ko hamarkadan, olagarro freskoa 6-7 pezetan saltzen zen kilo. Olagarro lehorra, normalean, etxean jaten zuten; Zumaian eta Zarautzen ere saltzen zuten, ordea, 200 edo 300 pezetan kilo”.



Olagarrozalearen **ikonoa**

Klaudio Etxabe *Pikote* da gehien nabarmendu den olagarrozaleetako bat. Javier Carballok berak aitortu du, guztien artean aukeratu behar balu, *Pikote* esango lukeela. “Klaudiok, Ebaristok [*Akebarro*] eta beste fenomeno batzuek bezala, brankada bakoitzeko zulo guztiak ezagutzen zituen. Buruan zuen mapa. Txikitatik ikasi zuen. Pikoteren bizitza olagarroa izan da; bera da olagarrozalearen ikonoa”. Hona hemen liburuan eskainitako pasarteetako bat:

“Klaudio Etxabe Udabe *Pikote*, baserria kostatik gertu daukaten baserri-gehienak bezala, oso gazterik hasi zen olagarroa harrapatzen. “Oso txikia nintzenean, 9 edo 10 urte besterik ez nituenean, bakarrik jaisten nintzen Aitzarratik eta haitzean ibiltzen nintzen itsasbeheran; beti itzultzen nintzen 15 edo 20 olagarroekin, eta batzuetan bi bidaia ere egin behar izaten nituen harrapatutako guztia eramateko”. Handitzen joan zen neurrian, arrantzatutakoa ere handitzen joan zen, eta egun batean 102 olagarro ere harrapatu zituen. Beti marketan arrantzatu izan du, kako gogorak erabilia; bera hasi omen zen bi kako erabiltzen, “birekin hobeto kateatzen dira olagarro handiak, eta, gainera, haitzean ibiltzeko lagungarriak dira”. [...] Ez dauka gogoan larrialdi berezirik, baina behin baino gehiagotan ibili omen izan da burua urpean sartuta ‘eta igerian jakin gabe!’”.

Harrapatu duen olagarrorik handiena 7,200 kilokoa izan zen eta gehiago kostatu zitzaion akabatzea harrapatzea baino, “ez zitzaidalako sartzen ahoan, begien artean daukan nerbioan koska egiteko”. [...] Deba eta Zumaia arteko kostaldean bizi zirenen artean, garai batean eztabaida sutsuak izaten ziren, kostaldeko bi olagarrozale ezagunenetatik zein zen hobea: Pedro Gorritiberea Goizeru (1928), Debako Arrona-mendi baserrikoa; edo Klaudio Etxabe, Zumaiaiko *Pikote* baserrikoa. Klaudiok gogoan du lagun talde bat ahalegindu zela desafioa antolatzen, baina ez zen gauzatu, ez zelako erraza antolatzen. “Oso zaila zen desafio hura jokatzea”. Klaudiok olagarrozale hauek nabarmentzen ditu, besteak beste: Alejo *Etxenagusia*, Erramun *Beltza*, Jose Agustin *Agerrebekoa*, Ebaristo *Akebarro*, Pako *Andresene*, Pio Elosua...”,

# Pasadizoak eta bitxikeriak



-Orain dela urte batzuk, gure inguruan gabarrantzan ibiltzeko beharrezkoa zen baimen berezia, Zumaiaiko Guardia Zibilaren kuartelean ematen zutena; baina aldi baterako baimena zenez, ia inork ez zuen eskatzen. Behin batean, Jon Iñaki Alvarez, Jabier Azpillaga eta Jesus M<sup>a</sup> Arriola zumaiaarrak eta Rikardo Enparan legazpiarra guardia zibilek Sakonetan geldiarazi zituzten, baimen hori ez edukitzeagatik; guardiak errietan egin zieten, eta alde egiten utzi zieten azkenean, baina hurrengoan baimena eskatzekotan. Hurrengo egunean, laurak atzera Sakonetara bueltatu ziren arrantzara, berriz ere bai-menik gabe, ez zituztelakoan harrapatuko, eta txarrenera ere, harrapatuz gero, ez zirelakoan izango guardia berberak; baina oker zeuden, eta aurreko eguneko berberak geldiarazi zituzten. Orduan, guardietako batek esan zion beste bati: “¡Oye, tú, estos son los mismos de ayer!”, eta Jon Iñakik erantzun: “¡Ustedes también!”. Berriz ere errietan egin zieten, baina beste ezer ere ez.

-Juan Ramon Zubiak beste pasadizo hau ere kontatu digu. Bigarren Mundu Gerran (1939-1945), goiz batean Antonio Zubia Etxabe *Xendua* eta beste olagarrozale batzuk arrantzan ari ziren haitzean, zabalgunean. Hala batean, itsasoak harraldera ekarri zuen gizon baten hilotza aurkitu zuten; uniforme zeraman jantzita, Luftwafferen (Alemaniako aire-indarrena). Gorpua, berez, Zumaiaiko lurretan zegoen, Palankamugarriren ondoan; harraldean, horixe da Deba eta Zumaia arteko mugaria, eta burdinazko barra biribil bat dago bertan, haitzean zutik sartuta. Olagarrozaleek garbi zeukaten aurkitutako hilotzaren berri eman behar zutela, baina pentsatu zuten gorpua Debako lurre-tan bazegoen konplikazio gutxiago izango zituztela. Horrela, di-da eta gehiegi pentsatu gabe, gorpua hartu eta metro batzuk harantzago eraman zuten, Debako lurraldean barrena, eta tarinei pasa zieten “fardela”.

-Pedro Gorriteberea Goizeru harrobian aritu zen lanean, baina aldi berean haitzean ere ibiltzen zen, itsaskitan eta olagarrotan, orain dela oso urte gutxi arte. Carmelo Urdan-

garini *Oficios Tradicionales* liburuan adierazi zionez, 1994an 1.320 olagarro harrapatu zituen. Debako kostaldeko olagarrozale onenetako bat izan zen. Garai hartan, Zarauzko azokan, olagarro freskoa 700 edo 800 pezetan saltzen zen kilo, eta lehortua 5.000 edo 6.000 pezetan kilo.

## Pedro Gorriteberea Goizeruk 1.320 olagarro harrapatu zituen 1994an







ARGAZKILAK: JAVIER CARBALLO

▲ FAMILIAKO TRADIZIOA

Inaxio, Jose Mari eta Alejo Aizpurua Agirrezabalaga anak.

▶ GASTRONOMIA

Zumaiaiko bi errezeta tradizionalaz gain –olagarro zopa eta olagarroa patatekin–, Olarro Eguneko errezeta berritzaileak ere jaso dituzte liburuan.



dik badira saltzeko arrantzatzen duten gutxi batzuk, baina gehienek zaletasunagatik eusten diote, denborapasa modura. Gizartea ere asko aldatu da azken 30 urteotan, eta gaur egun olagarroaren arrantza zorrotz araututa dago: olagarro bakarra har daiteke arrantzaldi bakoitze-ko, eta 750 gramotik gorakoak.

Inaxio Manterola biologoak –olagarroaren deskribapena egin du liburuan– arau ustelak direla uste du: “Legeak jarriko dituzte nahi dituzten guztiak, baina denak barregarriak dira. Esate baterako, andarika arrantzatzeko debeku garaiak Galiziako berberak aplikatu dituzte hemen, baina kumeak ez dituzte sasoi berean egiten... Lehorreko arrantzarekin itsasoari egin dakiokkeen kaltea, erabiltzen diren baliabideekin (kakoa, kanbera...), oso-oso azalekoa da. Arazoa itsasoan dago, itsasoa eta harraldearen arteko komuni-

kazioa moztuta dagoelako. Horregatik dago hain olagarro gutxi gaur egun, itsasoan sare mordo dagoelako zabaldua. Itsasoan eragiten ari den kaltea kontrolatu behar da. Horregatik, oso interesgarria litzateke korridore ekologikoak sortzea, komunikazio hori errazteko”.

Javier Carballoren iritziz, lehengo arrantza oparoak ezin ditugu gaur egungo begiekin epaitu: “Lehen, itsasaldi onak egokitzen zirenean, 30-40 kilo harrapatzen zituzten egun bakoitzean. Baina hiru egun onak amaitutakoan, kitto. Kontuan hartu behar da zertarako arrantzatzen zuten: batik bat, jateko; gero, saldu ere egiten zen, baina etxeko ekonomia osatzeko izaten zen. Ez da sekula arrantza industrialia izan. Gainera, ez ziren soilik olagarrotara joaten: izkirak, andaririkak, lapak... Harraldeak ematen zuena, etxean jateko”.

**Beraz, gaur egun olagarro gutxi baldin badaude, ez da garai batean gehiegi arrantzatu zelako...**

Javier Carballo: Ez, ez. Olagarroa urtebete bizi da eta ez baduzu arrantzatzen hil egingo da. Horregatik gaur egungo legeak ez du zentzurik. Are gehiago, legeak berak dio ez dela mugatzen olagarro kopurua urritzeko egon daitekeen arriskua-gatik, baizik eta arrantzatzeko brankadetako haitzak puskatzen direlako... Horrek oraindik zentzu gutxiago du, olagarrozaleek ez dituzte-eta haitzak puskatzen! Ezjakintasuna da hori. ■



# GOROSTI BODEGA

ELORRIAGA AUZOA, DEBA, GIPUZKOA  
Tfno: 670408439 Juan M<sup>o</sup> Echave  
692605223 Isabel Etxaniz

**flysch**  
txakolina

Gobernako Txakolina  
DENOMINACION DE ORIGEN



*Cure-Txokoa*  
aberna

Upela plaza, 4  
20750 Zumaiia  
Tel.: 943 86 09 70

English School

# Harvest

...eta udaran Ingalaterrara ingelesa praktikatzera

San Jose, 11 bis tel. 943 143 334

API

# Ibaitin

inmobiliaria

Ricardo Azkue  
API 399

Txomin Agirre 4, behea  
tel. 943 862 651  
faxa 943862748

rjazcue@euskalnet.net

*ilarzi*

Alai auzategia, 2  
Tel. 943 24 50 20

INPERNUPE  
ELKARTEA

Erribera kalea 16. Tel. 943 861 523

*IRUITZ*

Ileapaindegi Mistoa

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAJA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 860 760

# ITSASKI

## SUPERMERKATUA

Urumea kalea z.g. tel. 943 143 058

**Itzurun, S.L.**  
Aroztegia

Ateak, leihoak, tarimak, armairu enpotaatuak...

Itzurun Zuhazbidea, 2 behea  
Tel. / Fax: 943 86 15 65

ORRAZTEGI  
ZUMAI

943 862 083

# JUARISTI

jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran  
Eguneko menua  
Jangela klimatizatua

Basod, auzategia, 10 tel. 943 861 853

*Xala*

Pintxoak eta  
otartekoak

Txomin Agirre kala, 8

**KABI** Patata Etxezarreta, 15  
943 117 427

TABERNA

*Kaithermik S.L.*

**Arotzeria metalikoa**  
Aluminiozko leihoak ZH-trekin,  
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320

Upela plaza, 8  
tel. 943 862 517

# kalari

**KANTAU**  
**TABERNA**

Pintxoak • Plater Konbinatuak • Kazolatxoak

Kantauri plaza, 4 behea • Tel. 943 575 840

# Kresala

Taberna

Julio beobide 3, tel. 943 019 869



Aintzane **URBIETA** eta Jokin **GIJARRO** | Arraunlariak

# MILAKA ARRAUN KOLPE, KOLPE BATEAN

TESTUA: AITOR MANTEROLA

ERREPORTAJEA



ARNAITZ RUBIO APREA

Arraunlarien lana amaitzear da. Gizonezkoei, San Miguel ligako jaitsierako kanporaketa jokatzeko falta zaie, denboraldiko bi estropada garrantzitsuenak; asteburu honetan dira. Emakumezkoek joan zen igandean bukatu zuten; Kontxako bigarren igandean nagusitu egin ziren, orokorrean bigarren egin zuten eta errekorra jarri zuten. Jokin Gijarro patroia eta Aintzane Urbieta arraunlaria bildu genituen Kontxako bigarren egunaren atarian, denboraldia aztertzeko.

**Traineruaren denboraldian zehar zuenganatzen duzue arreta arraunlariok, baina hasi, askoz lehenago hasten zarete entrenatzen. Kontatuko noiztik zabilzaten prestatzen?**

Jokin Gijarro: Azaroaren erdian hasi ginen. Hasieran, hiruzpalau entrenamendu osatzen genituen, eta bigarren astebururitik aurrera, laugarrena ere sartu genuen, uretako saioa, larunbatetan. Azaroa bukatu arte ibili ginen horrela, eta gero, hortik aurrera, egunero samar entrenamenduak.

Aintzane Urbieta: urrian hasi ginen, hiru entrenamendu astean egiten, eta gero, asteburuko egun batean, trainerua osatu nahi izaten genuen. Baina jendea falta, eta trainerua ere bai, Klubeko biak gizonezkoekin betetzen zirelako; San Pedrokoa ekarri zigun Klubak, eta horrekin jardun genuen.

**Ontzi txikietako denboraldia propio prestatu zenuten?**

Aintzane: Ez, ez. Azkeneko bi urteetan, traineruari eman

diogu garrantzia. Arraunlari batzuk kanpoan ari dira ikasten, eta ezin izaten dugu ontzi txikietakoa egoki prestatu; gainera, esanda bezala, helburu nagusia trainerua izaten dugu. Bateletan eta trainerilletan ahal duguna egitera ateratzen gara.

Jokin: Gu bateletan ez gara ateratzen, eta trainerilletan lehia-tzen gara, baina ia-ia entrenamendurik egin gabe ontzi horietan, traineruan ibiltzen garelako beti. Txapelketetan eta txalupa onena ateratzen saiatzen gara, eta gehixeago entrenatzen dugu trainerillan, baina garrantzi handirik eman gabe.

**Jakinaren gainean zeundeten biok ez zinetela ateratzen lehiara propio prestatuta, baina emaitza ona lortzea denoi gustatzen zaigu. Nola uztartu bi egoera horiek?**

Jokin: Hasieratik esaten digute trainerua dela gure helburua, eta horretara jartzen duzu burua. Gero, trainerilletan, ahalik eta ondoen egin nahi izaten duzu, eta beti ez dira lortzen emaitza onak, horretara ez zaudelako jarrita.



Aintzane: Kanpoan egon naiz praktikak egiten, eta ez naiz ibili bateletan eta trainerilletan. Baina badakit hemen jendea oso lehiakor dagoela, eta goian ibiltzea nahi izaten duzu ontzi txikietan ere, nahiz eta jakin helburua trainerua dela.

Jokin: Neguko entrenamenduen errutina mozteko balio dute ontzi txikietako estropadek, lehiatzeko aukera ematen dutelako.

### **Entrenatzen hasten zaretenean, udazkenaren hasieran, pentsatzen al duzue zer urruti dauden traineru estropadak?**

Aintzane: Luze joaten da. Azkenean, traineruak dauka indarra hemen, eta ez da motza izaten. Gainera, guri gogorra goa egin zaigu, ikusten genuelako zaila izango zela trainerua osatzea. Gogoia geneukan uda iristeko, baina kezka ere bai, nolako maila emango genuen ez genekielako. Horregatik, zenbait unetan motibazio falta ere izan dugu negu-udaberri partean.

Jokin: Luzeena azkeneko hilabetea da. Ordura arte moldatzen zara, “etorriko da, etorriko da” pentsatuz, baina azkeneko hil hori... Bertan ikusten duzu, eta ez da azkar heltzen. Negua ere gogorra da, eguraldi txarra egiten duelako, baina pasatzeko modua egiten dugu.

### **Goazen udara. Aintzane, esan duzu, trainerua osatzeko arazoak izan zenituztela, eta ekin zenioten lehiari Portugaleten, Euskotren ligara sailkatzeko estropadan. Eta hara non, irabazi egin zenuten. Nola bizi izan zenuten hura?**

Aintzane: Gure asmoa zen Euskotren ligan sartzea, irabaztea ez zitzaigun burutik pasatzen. Ikusten genuen San Juan gora zetorrela, Getaria-Tolosak emango zuela berea, Galiziak ere bai, eta Oriok irabazi egin zigun aurreko asteko estropada, Orion bertan; eta Hibaika ere hor zegoen. Oso eguraldi txarra egin zuen Portugaleten, eta gu moldatu ginen ondoen. Irabazi, eta hor hasi ginen sinesten bagenuela maila ona. Handia izan zen egun hartan irabaztea. Batzuek esan ziguten zortea-ekin irabazi genuela, baina hurrengo egunean, Zarautzen, hi-

rugarren egin genuen, eta lehen hirurak segundo batean sartu ginen. Motibazioak gora egin zigun asteburu hartan.

### **Zuek Jokin, lehen asteburu ona egin zenuten San Miguel ligan, zortzigarren eta zazpigarren egin zenuten.**

Jokin: Latza izan zen asteburu. Larunbatean, egundoko lana egin genuen, itsaso txarrean, eta igandeko emaitza onak ezkutu- utzi zuen hura. Gero, igandean, esanda bezala, lan ederra egin genuen Astilleroko erreka hartan, erlojuaren aurka. Orduan denok pentsatu genuen aurten erraz eutsiko zeniotela mailari. Zer pentsatu zenuten zuek?

Jokin: Tarteka etortzen ziren ideia politak, “hor ibiltzea dauka- gu” eta halakoak. Baina kirolariak hori dauka: ondo datozenean gauzak ona pentsatzen, eta gaizki datozenean, txarra buruan. Motibazio handia eman zigun hain goian ibiltzeak, eta sinetsi ere egin genuen erraz ibiltzeko aukera egon zitekeela, baina momen- tu bateko ustea izan zen, hankak lurrean genituelako.

### **Gero, bigarren asteburu heldu zen, eta danbatekoa! Portugaleten eta Zarautzen, bietan azkena. Orduan zer?**

Jokin: Portugaleten oso lan txarra egin genuen, baina Zarau- tzen zorteak ez zigun lagundu. Jendeak ez dio asko errepa- ratzen zortea-ren kontuari, baina pasada handiak jotzen ditu, gure kale santu hauekin!

### **Hasierako ilusio hura kolpetik zapuztea izan al zen bi- garren asteburuko hura?**

Jokin: Aurrekoa dena biribil atera eta berez gure lekua ez zela pentsatu genuen, baina Portugaletekoa ere gure lekua ez zela garbi geneukan. Zarautzen, berriz, une garrantzitsuan, arraun txikia hautsi zitzaion aurrekoari. Ez genuen dena harrika bota, denbora asko genuela iruditzen zaigun.

### **Aztera begiratu, eta balitz eta balu ibiltzea alferrik dela jakinda ere, Zarauzko estropada hark ez al zaituzte kon- denatu azken-aurreko lekura?**



## KONTXA

Aurtengo Kontxako Banderan mutilek ez zuten sailkatzea lortu. Neskek, aldiz, bigarren postuan amaitu zuten.



ARGAZKIAK: GORKA ZABALETA

Jokin: Hantxe alde egin ziguten Portugaletek eta Pedreñak, eta gero, Pasaian, adibidez, hirurok segundo batean sartu ginen, baina gu hirugarren, estropada biribila egin eta gero. Bederatzigarren izan edo zazpigarren izan egun hartan alde a zegoen, baina...

**Euskotren ligako hasiera eder haren atzetik, Gipuzkoako ligakoa etorri zen, eta Donostiako estropadan, itsaso txarrarekin, bandera. Baina itsasoagatik izan zela entzun behar berriz...**

Aintzane: Hori da, bai. Jendeak zorteari ematen zion meritua, eta entzuten genuen Getaria-Tolosak ere ez zuela taldea ondo jarria oraindik. Guk bagenekien zortea baino zerbait gehiago zela, baina hainbeste jende esaten zigun zortearena, uste dut benetan ez genuela sinesten.

**Kanpoko mezuak ez ziren zuen aldekoak, eta horren aurrean zer egin zenuten?**

Aintzane: Haserretu egiten zara, meritua kentzen dizutelako. Kanpoko mezuak asko eragiten digu guri, eta uste dut garena baino gutxiago garelara sinesten dugula.

**Uztaila erdialde hartatik iraileko lehen asteburura joango gara, une batez. Gutxiago zaretela usteak eragina izan zuen Kontxako lehen jardunaldian?**

Aintzane: Ez dakit. Askotan gertatzen zaigu hau: estropada ona egin eta gero, ahal dugula pentsatzen dugu, baina gero, hurrengoan, ez dugu behar bezala gozatzen. Zarauzko estropadan, adibidez, abuztuaren 15ekoan, Gipuzkoako ligako azkenekoan, liga irabazita joan ginen, eta bigarren egin genuen; ez ginen gustura aritu. Orduan pentsatu genuen hurrengo estropadan, Zarauzko Estropadako aurreneko egunean, arraun egin behar genuela, gozatu egin behar genuela, eta begira zer lan biribila osatu genuen. Kontxako sailkatze estropadan ere sekulakoa egin genuen, baina lehen igandean, ezin gustura ibili. Tentsio puntua ere bageneukan, inoiz baino gertuago ikusten genuelako bandera. Tentsioak eragina izan zuen, eta

lehen kaletik joateak ere bai, buruak lan asko egiten duelako. Pixkanaka-pixkanaka, ez sinesten hasi ginen.

**Hala ere, Kontxako lehen igandeko emaitzak ezin du desitxuratu denboraldi bikaina, ezta?**

Aintzane: Ematen du egindako denak ez duela balio Kontxako lehen igandekoagatik. Gure artean esaten dugu non geunden uda hasieran, edo udaberrian edo neguan, eta aurtengandik egundoko balioa duela; eta hori dena ezin da ahaztu.

Jokin: Txarrena da non eta Kontxan egitea estropada txarra. Denboraldi osoan kendu ez dizuten denbora non eta Kontxan kendu behar.

**Egia esatera, ia inork ez zuen espero lehiatik kanpo geratzea lehen igandean, eta horixe izan da gogorrena, ezta?**

Aintzane: Guk ere ez genuen halakorik espero, bigarren igandarako lehiari jarraitzeko moduan egotea espero genuen. Gainera, ez zaigu iruditzen hain estropada txarra egin genuenik. Okerragoak egin ditugu; esaterako, herrikoa, desastre ibili ginen. Egin beharraren egin beharrarekin ez genuen ezer egin, eta hala ere, Galiziak segundo bakarra atera zigun.

**Jokin, zuen lanari berriz helduta, bigarren asteburuko emaitza txarren ondoren, beste pare bat asteburu ez hain on etorri ziren, baina gero, gora egin zenuten, eta salbazioa gertu jarri zen. Zer balorazio egiten horren inguruan?**

Jokin: Portugaletek bospasei puntura alde egin zigun, eta Pedreña nahiz Astillero urrunago zeuden. Gero, gora egin genuen, eta bi asteburu onen ondoren, gerturatu egin ginen. Hiru puntura jarri ginen espainiarrengandik... eta gero, geldialdia etorri zen asteburu batekoa. Sekulako entrenamenduak egin genituen, gustura, baina uste dut lehiaketa gelditzeak kalte egin zigula. Orain, estropadak egon izan balira zer egingo genuen ere ez dakit.



**kuttun**  
lentzeria

erribera kalea tel. 943117936



**malaur**

**MAITE**  
ILEAPAINDEGIA



Amaiako plaza, 2 tel. 943 143 278



**Maluta**  
jatexea • taberna

oilasko erreak • kaxuelitak • ogitartekoak  
Izaga, 2 Tel. 943 860 224

CROISSANTERIA



pizzak  
hanburesak  
bokatak...

**marina**

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46



**MENDI - ONDO C.B.**  
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569



**METRO**  
taberna

ogitartekoak  
pintxoak

Upela plaza, 7  
tel. 943 537 901

**Nikol**  **Enea**

TABERNA

Amaiako plaza



**NOLA S.L.**  
TAILERRAK ETA  
KARROZERIAK

Etengabeko garabi zerbitzua

636 867 812 (Zumaiá)  
609 834 438 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan)  
20750 - Zumaiá  
Tel.: 943 861 363  
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar industrigunea, C  
20820 - Itziar-Deba  
Tel.: 943 606 291  
noia@carroceriasnoia.com

www.carroceriasnoia.com

**"Muagi"**

errehabilitazioa  
kirol medikuntza  
fisioterapia

RPS: 034/97 Alta Mari, 3 blokea tel. 943 861 691



ETXE GINTZA  
**OLIDEN**  
CONSTRUCCIONES Y REFORMAS, S.L.

Era guztietako berrikuntza eta igeltserotza lanak  
**FATXADAK ETA TEILATUAK**  
Sukaldeak, bainugelak...

Tel. 647 040 156 / 686 911 257



**OSA**  
BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa  
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149



**OSKARBI**  
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranitz, 1 Tel. 943 143 112  
oskarbikirolak@euskalnet.net



**OSTOLAZA**  
OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Kortia Industrigunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaiá (Gipuzkoa)  
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45  
www.ostolaza.com • e-mail: ostol@ostolaza.com

**Ostolaza**  
Altzariak

Julio Beobide Ibiltoikia, 1  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
mueblesostolaza@euskalnet.net

Tel./Faxa: 943 86 13 25

**OTEZURI**  
KAFETEGIA

Gosariak  
Ogia  
Egunkariak

Sagarbidea, 4 Tel. 943 143 401



**Hondarribiko estropada ere mugari izan zen: Astillerok aurea hartu zizueten ehunen gutxigatik, eta bi puntura jarri beharrean, laura alde egin zuten. Kolpea izan al zen?**

Jokin: Pena izan zen egun hartakoa. Gero, Pedreñak irabazi zuen gure txandan behin baino gehiagotan, eta hala ere, ez zigun puntu asko ateratzen inor ez zelako sartzen tartean. Itxaropena izan genuen egunen batean kolpea emateko, baina aukerarik ez dugu izan horretarako.

**Herriko estropada helburua izaten al da?**

Jokin: Motibazioa apartekoa izaten da, hori ezin da ukatu.

Aintzane: Guretzat pena handia izan zen. Aurreko asteburuan, asteburuko biak irabazi genituen, Pasaian eta Getxon, eta azkeneko horretan, Galiziar bi segundo atera genizkiola eta, itxaropentsu atera ginen. Baina oso urduri jardun genuen, eta ezin etxean irabazi. Nahi genuen herrikoa atera, ea aurten bai, aurrekoetan ez dugulako estropada ona egin.

**Abuztuaren erdialdean, Gipuzkoako liga irabazi zenuen, eta Euskotren geratzen zen, Zarauzko bi estropada haiek. Sekulako lana egin zenuten, ezta?**

Aintzane: Gozatera atera ginen, Gipuzkoako liga irabazita genuela. Biribila atera zen, brankaz eta poparean egundoko lana egin genuen.

**Zarauzko bandera irabaztea ez da beste edozein banderara irabaztea, ezta?**

Aintzane: Hori da. Uste dut konturatu ere ez ginela egin lortu genuenaz Zarauzko bigarren estropada bukatu eta gero. Euskotren liga irabazi genuen, ligarik garrantzitsuen. Oraindik ere uste dut ez garelako konturatzen zer egin dugun aurten. Handia izan zen Zarauzkoa.

**Zuek Jokin, kanporaketan jarri behar izan zenuten burua, ikusirik goikoak harrapaezinak zirela.**

Jokin: Bai, konturatu ginen non dagoen gure borroka. Pixka bat behera egin dugu, eta gero, Zierbenak egundoko gorakada egin du. Hondarribiko estropadan 18 segundo atera genizkion, eta Zumaiakoan 12. Baina hurrengo asteburuan, Zarautzen, beraiek atera ziguten 15 segundo lehen egunean. Harrituta geratu ginen.

Aintzane: Kontxak ez dakit zer duen, baina traineru asko egundoko gorakada izaten dute estropada hori gerturatzen ari den bezala.

**Orain, kanporaketak jokatu behar. Nola helduko zarete?**

Jokin: Bete-betera. Uztaileko asteburu bikain hartara bezala heltzea espero dugu, edo hobeto. Baina beldurra ere bada, hiru traineru handi direlako aurkariak, baina lotsagabe joango gara.



## DENBORALDI BIRIBILA

*Hamar bandera –Zarauzkoa da argazkikoa– eta Euskotren eta Gipuzkoako ligak irabazi dituzte aurten neskek.*

Batzuek jaitsizat ematen digute, eta ezustea emateko gaude gu.

**Aintzane, hain denboraldi ederra egin duzuenek, komunikabideak hor ibili gara zuen inguruan bueltaka. Nola barneratzen da hori?**

Aintzane: Egia esan, iaz okerrago pasatu nuen Kontxako lehen igandea irabazi eta gerokoa. Kolpera etorri zen dena. Aurten, estropadaz estropada joan gara, gozatera, eta ez gaitu ito.

Jokin: Aurtengoa pixkanaka joan da, eta errazago da eramaten. Iazkoa, kolpetik etorri zen, eta Kontxan izan zen. Kontxak eman eta kendu egiten du.

**Egunero ikusi duzue elkar entrenamenduetan, eta zenbait estropadatan ere bai. Kontrasteak bizi izan dira: neskak banderarekin, eta mutilak beste lehia batean. Eskerrak ondo konpontzen zareten, ezta?**

Jokin: Bai, gu poztu egin gara nesken garaipenekin.

Aintzane: Guk ere nahi dugu ikusi Telmo Deun San Miguel ligan datorren denboraldian.

Jokin: Mina ematen duena da batzuei entzutea “neskak bai, bandera! Eta zuek zer?”. Hori da mingarria, baina ikasita gaude halakoen aurrean zer egin behar den. Azkenean, nesken banderak ere Kluberako dira. Bestelako komentarioak ere badaude, eta jende askok animatzen gaitu kalean; hori eskertzen da. Besteei zer esan behar diezu? Ezer ez. Ez dakite arrauna zer den. Eskerrak batzuek ulertzen duten, eta badakiten zenbat kostatzen den San Miguel ligan ibiltzea.

Aintzane: Egundokoa da San Miguel ligan aritzea. Hauentzat saria da hor egotea.

Jokin: Gu geu ere ez gara jabetzen askotan zer den hor ibiltzea. Ohitu bezala egiten gara, kolpea hartu eta kolpea hartu, baina sekulako maila dago, eta handia da hor ibiltzea. Guretzat kanporaketan mailari eustea bandera irabaztea bezalakoa da. Egundoko lasaitua hartzen da kanporaketan mailari eustean; niretzat bandera irabaztearen parekoa. ■





# ARTADIKO ESKOLAREN AZKEN IKASGAIA

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET  
ARGAZKIAK: GORKA ZABALETA

Iraila hastearekin batera bota zuten Artadiko eskola zaharra. Abandonatuta zegoen azken urteetan, hilzorian. 80 urte inguruko etxea pare bat egunean eraitsi zuten makina hondeatzaileek eta haren hormen memoria harri koskor bihurtu zen di-da batean. Zenbat haur pasa ote dira gela horietatik? Zenbat bizipen... Zenbat negar eta barre... Han bizitakoari buruz galdetu diegu Artadiko bi bizilaguni, biak ere Artadiko “institutuan” ikasitakoak.

**TXALAPARTA**  
OPARIAK

Angelu Sorzana, 2  
20750 ZUMAIA  
(Gipuzkoa)  
tel. 943 143 089  
faxa. 943 130 637

**Zumaia Hotela**  
Jatetxea  
Kafetegia

Alai auzategia, 20750 Zumaiak tel. 943 143 441 faxa 943 865 161

Egin zaitez  
**BALEIKE**ko  
bazkide





Harrizko pilare bat besterik ez da geratu zutik. Atariari eusten zion ostikoa da. Burdinazko bi utzai giltzatuta ditu gorputzean. “Han jartzen zuten bandera. Goikoa falta da eta beheko horretan... beheko horretan soka lotuko zuten”, du gogoan Rafael Manzisidorrek. Makina hondeatzaileek beren lana bete dute eta harri koskorrek daude egun batzuk lehenago Artadiko eskola zaharra zegoen lursailan. Ostikoaren alboan argazkiak atera eta gero, Inaxio Galarragak taldea utzi eta albo batera egin du. Paisaiari begira geratu da, barkardadean. Aurrean ditu Oikia eta Indamendi. Zer ote du buruan? Eskolaren azpialdean, mendi hegalean dagoen bere baserriko kontuak? Edo bistan diren Artadiko hiritartzeak eragindako porlanezko zauriek atsekabetzen dute baserri zaharra? Agian denboran atzera eginda, eraitsi berria den eskola zaharreko istorioak eta bizipenak liluratu dute? Pixkanaka taldera itzuli da, umoretsu: “Kostatuko zaie zutabe hau oso-osorik ateratzea!”.

Artadiko eskolako ikaslea izan zen Inaxio 6 urtetik 13ra bitartean. “Nik han egin nuen nire karrera, baina etxeko morroiak alde egin zuen eta utzi egin behar izan nuen”. 69 urte ditu gaur egun eta orain hamarkada inguru osasun arazoak izan bazituen ere, lanean jarraitzen du, beti bezala, Torre baserrian. Lehortea dela medio, triste dago aurtun baratzak ez dituela aurreko urteetan bezainbat fruitu emango. Berekin da Rafael, Torrontegi baserriko semea, eta Inaxio bezala, Artadiko eskolako ikasle ohia. “Gure institutua zen hura. Zumaiera fraideetara joan nintzen arte han egin nituen ikasketak”, dio.

Ez dakite ziur eskola zer urtetan zabaldu zen. “Esango nuke gerra aurretik zabalik izango zela. Gure aitak esaten zuen han gaueskola ere ematen zela”, dio Inaxiok. Zumaiaiko udal artxibategian ez dago honen berri ematen duen dokumenturik, baina bai Artadiko eskolaren aipamenak dituzten 1930eko hamarkada hasierako zenbait agiri. Hala, 1933. urtean auzora, eskolara eta Gorostiagarako auzunera ura eramateko aurrekontuak aztertu ziren. Bi urte geroago, 1935. urtean, Artadiko ‘landa eskola’ garbitzeko faktura bat ere jasotzen da artxiboan. Garai hartako argazki batean Artadirako errepedea zabaldu zen unea agertzen da eta eskolako zati bat suma daiteke: gaur egun zutik dagoen pilarea, hain zuzen ere.

“Ez dakit eskola noizkoa den. Paperetan begira egon naiz eta ez dut ezer aurkitu; pentsatzen nuen banuela orduko argazkiren bat. Baina badakigu tren istripua izan zenean, behintzat, eskola zabalik zegoela”, du gogoan Rafael. 1941eko otsailaren 15ean Donostiara zihoan tren Urola ibaira erori zen haizeteek bultzatuta. “Eskolako maistra Orikoa zen eta tren hura hartu behar zuen etxera joateko, baina eguraldi txarragatik Zumaian geratzea erabaki zuen, ahizparen etxean. Trena hartu izan balu...”. Egun horretan bertan haizeteek eskolako teilatua kaltetu zuten. “Uralita motakoa omen zen, gorri kolorekoa, eta haizeak Basakarte baserri pareraino eramaten zuen. Haren orde z porlanezko oinarria jarri zen eta haren gainean ezarri zituzten teilak”.

Auzoko baserrietako haurrak eskolaratzeko sortu zen ikastetxea. Garai hartan, orain ez bezala, Artadin jende kopuru polita bizi zela dute gogoan. “Pentsa, gurean bertan 10 ume ziren. Juntorenean ere antzera eta horrela denean!”, dio Rafael.

Obrak egin aurretik (etxebizitza bat egokitu zen eraikin barruan, maistrarentzat), gela bakarra zuen eskolak. “Denok batera egoten ginen. Zenbat izango ginen? 30 bat lagun. Hiru mailatan banatzen



Argazki bilduma







**La Prima Vera**  
pizzeria

Alta Mari, 17, behea  
tel. 943 247 011

**Rosi** Garbiketak

Etxeak eta dendak  
Enpresa eta auzo lanak  
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943 016 353



**RUBIO**  
Pinturak

PINTURAK,  
ARTE EDERRAK,  
ALFONBRAK,  
DROGERIA,  
PINTATURIKO PAPER,  
ESKULANAK...

943 861 335 • 656 779 788  
Erribera 1 behea

**SESMA**  
ENTRENATZAILE PERTSONALA

Kalitatezko Jarduera Fisikoa eta Kirola

667 750 206  
www.entrenadorpersonalesma.com  
josebasesma14@gmail.com

**Talajaia**  
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370



**TALAI-PE**  
jatetxea-erretegia

Arrainak, mariskoak eta txuletak parrillan  
Julio Beobide ibiltokia Tel. 943861392

**Tapaia**  
Taberna



Erribera kalea  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
tel. 943 861 973

**TTAKUN TABERNA**



Izustarri, 3  
tel. 943 865 289

**TXIMISTA**  
garagardotegia

Ogitartekook  
Plater konbinatuak  
Txerri-ukondok (hodilloo)  
Salxitzak, oilaskok...  
Garagardok aukeran

Ondartza plaza, 4 behea Tel. 943 573 905

**TXORTENA  
JATETXEA**

Eguneko menua, Asteburukoa,  
Parrilla, Wifi gunea,  
Plater konbinatuak,  
Kazueltak, Errazioak

Oikiako plaza 24.  
Tel. 943 865 315  
OIKIA



**Txingurri**  
loradenda

Loradenda Lorazaintza  
erribera, 1 tel. 943 860 778  
tel. 943 861 180 655 703 343

Nekazaritza Injineru Teknikoak



**UKENDU**  
PARABOTIKA  
BELARDENDA

Aitziber Etxeberria Garro  
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943 860 992 www.ukendu.com

**Urola 2000, s.l.**  
Aroztegia

\*Erekitzen akabera eta dekorazioa  
\*Baserrien zaharberritzea  
\*Enbarkazio konponketa  
\*Ate, zokalo, tarima eta pertsianak  
\*Armaru enpolutuen aurrealdea  
\*Aroztegi metalikoak

Trenbide pasealekua, 1 tel. 943 143 505 - 619 424 323



**Xanti Osa**  
Arantxa Azkue

Amalako plaza, 13  
tel. 943 860 914  
657 794 153  
Denda: tel./faxa 943 862 385

**Zalla**  
mizena



• plater konbinatuak  
• ogitartekook  
• oilasko erreak

Urda Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA

**ZUMAIA**  
AUTO-ESKOLA



• Gidabaimen guztiak ateratzeko baimendua  
• Praktika eta azterketak Azpeitian  
• GURE HELBURUA:  
Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 - behea • tel. 943 86 10 18 • ZUMAIA



**EuroTaller**  
ZUMAIA MOTOR, S.L.

José Rey Alfaro  
Gerente

Santixo Auzoa, 22  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
Telf. 943 143 143 - Fax 943 865 161  
e-mail: zumalamotor@telefonica.net

**Zumaia optika**



Txomin Agirre kaia, 6 tel./faxa: 943 143 057





Inaxio Galarraga eta Rafael Manzidor.

gintuzten: txikienak, aparte; gero pixka bat goratxoagoak, eta jarraian gu, ‘deberrak’ eta ‘problema’ ematen zizkigutenak”, dio Inaxiok. Klaseak goizez eta arratsaldean ematen zituzten: “Goizez bederatzitatik hamabietara, eta arratsaldean ordu bietatik bostetara. Orioko maistrak laueterako bidaltzen zituen txikienak, baina gu amaierara arte egoten ginen, eta lanak egiteko izanez gero, batzuetan bost eta erdiak arte”.

‘Maistra’ hitza agertzen da behin eta berriro elkarrizketan. “Guk ez genuen maisurik ezagutu; hemen beti maistrak izan ziren. Nik bakarrik ezagutu nuen, Oriokoa bera. Anita zuen izena. . . Abizena ez dut gogoratzen”, dio Inaxiok. “Hasieran maistrak euskaldunak ziren. Oriokoa zen bat eta oñatiarra bestea. Gero hasi ziren kastellanoak ekartzen. Beti kastellanoak”, berresten du Rafael. “Bazen Burgoskoa zen maistra bat”, azaldu du Inaxiok. “Senarra izaten zuen alboan eserita egunkaria irakurtzen. Errespetua jartzeko egoten zen han, baina zer errespetu izango zioten zaharrenek? Ederrak ziren, ba, haiek!”, dio eta denok barrezka hasi gara.

Garaiak garai, ikasketa guztiak gaztelaniaz egitera behartuta zeuden haurrak. “Akordatzen naiz Burgoskoa egon zenean bandera aurrean jartzen gintuela eta *Caru al sol* kantatu eta gero sartzen girela eskolara. Bertako maistrekin ondo aritzen ginen, baina atzetik etorri zirenak gogorra baino gogorragoak ziren”, dio Rafael. Eskolan euskaraz hitz egiteko aukerarik ba ote zuten haurrek? “Haiek bazekiten guk erdaraz pitorik ere ez genekiela! Derrigor utzi behar gure artean euskaraz egiten!”, dio algaraka Inaxiok.

Artadiko mendiaren hegaletan kokatzen dira baserriak. Aldapa gogorrak igo eta jaitsi behar izaten zituzten egunero haurrek eskolara joateko. Lagunen arteko jolaserako lekuak ere bihurtzen ziren malda horiek. “Ostia ederrean jaisten ginen!”, dio barrez Rafael. “Aurrean zeuden andreak apartatu egiten ziren. Errebueltetako bide ertzean zeuden belar guztiak kentzen genituen buelta hartzerakoan, joaten ginen abiadurarekin ezin izaten genuen gelditu eta. Goitik behera azkar joaten ginen, baina baita behetik gora ere. Askotan apustuak egiten genituen zein lehenago helduko. Agian bat lehenagotik ateratzen zen eta ez zion uzten besteari pasatzen uzten. Halakoetan pinudian gora egiten genuen”. “Nire aitona behin esan zidan goitik baserrirainoko

## Eraisketa bat, bi iritzi

2007. urtean eraikina erortzeaz zegoela adierazi zenetik eraitsi den arte bost urte luze pasa dira. Denbora horretan eraikinaren egoerak okerrera egin du. Segurtasuna bermatu nahian, eskola zaharra bertan behera botatzeko erabakia hartu zuen Udalak. “Eraikinaren alde bat erortzen hasita zegoen. Denbora honetan jarraipena egin diogu eta ohartu gara zati gehiago ari zirela erortzen. Gaur egun, eraikina lurreratzeko zorian zegoen. Egoera honetan dauden eraikinen kasuan, ‘merkeago’ ateratzen da eraistea eta berria egitea, zaharra birgaitzea baino”, dio Udaleko arkitekto Gorka Arregik. Hala ere, arrazoi nagusia segurtasuna izan dela azpimarratzen du. “Artadira igotzen ziren zenbait pertsona, batez ere umeak, bertara sartzen ziren eta arriskutsua zen egoera horretan mantentzea”.

Behin etxea botata, lursaila bere horretan mantenduko dela dio. “Une honetan udal aurrekontuek ez dute harako ezer aurrekusten. Dena den, Udalak bertan askaldegia bat egiteko proiektua du, Non arkitekturak idatzitakoa, baina ez da hau unerik onena horrelako egitasmo bat aurrera eramateko”, gaineratu du Arregik. Eraiste obrekin batera, Gernika parkearen erdian egon diren komun publikoak Artadira eramango dira.

Eraikina zutik mantentzeko neurriak hartzea bazegoela uste du Dani Carballo arkitektoak, baina bere ustetan horretarako interesik ez du izan Udalak. “2007an, Luciano Pagaegi udaleko arkitekto kontratatuak, udal arkitektoa zen Jone Kaltzakortari kontsultatu gabe, eraikina erortzeaz zegoela esan zuen eta astebeteko epea eman zitzaion Ander Hormazuri eta Keixetari etxea uzteko. Gu Artadira bertaratu ginen eta txostena egin genuen Udalak egin beharrekoak argitzeko. Txosten hartan esaten genuen eskolaren egoera lotsagarriaren arduraren berarena zela”.

Bere garaian etxea eraisteko beharrezkoak ziren baldintzak ez zirela bete dio Danik. “Eraipen agindua emateko bi aukera daude. Espediente urbanistikoa bidez, obra legez kanpoko denean. Udal arkitektoak eta udal zinegotziek sinatu behar dute horretarako. Hondameneko espedientea bada, aldiz, udal arkitektoak hondamen hori frogatu behar du eta gero txosten hori udal batzordera eraman behar da, han sinatua izan dadin. Kasu honetan ez zen halakorik izan. Pagaegi Artadira igo eta ahoz esan ziren eraikina husteko, etxea arrisku larrian zegoelako eta astebeteko epean eraitsi egingo zelako”.

Samina eta haserrea sumatzen dira Carballoren hitzetan: “Gaur egun arte ez da erori. Badirudi Udalak eta Inmobiliaria Oriok egin behar zuten hiritartze egitasmoan molestatu egiten zuela eskolak, eta erortzeko arriskua zuela ikusita, egitura sendotu beharrean, eraistea erabaki zutela, beharrezko txostenak eta ikerketak egin gabe”.

Astebeteko epea izan behar zuena bost urte luzera pasa da. Zergatik halako atzerapena egoera benetan larria bazen? “Hondamen deklarazioa formalki ez da egin. Aspalditik aurrekusten zen eraikina eraistea, baina... arrazoi desberdinengatik ezin izan dugu orain arte aurrera eraman”, amaitzen du esaten Gorka Arregik.

# ERROTA



# OPIL OKINDEGIA

*era guztietako tarta  
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60



## zumaia arduratsu



Plastikoa



Papera



Organikoa

guneetan edukiontziak jarriko dira  
izan arduratsu, birziklatu

 **Larro Eguna** Irailak 15



Zumaia Udala





bidea minutuan egiten zuela, eskola atzeko zelaitik aterata pendizean behera. Hainbesteko distantziarik ez dago”, gaineratu du Inaxiok.

Artadiko eskolak 1968. urtean itxi zituen ateak. “Ume gutxi izateaz gain, hezkuntza sistema ere aldatu egin zen. Lehen denak gela berean izaten ziren; gero, adinaren arabera banatu ziren”, eta eskola mantentzeko adina haurrik ez zegoen. “Nire anaia txikia 4 urterekin hasi zen eskola honetan, baina ezin izan zituen ikasketak bertan amaitu. Horientzat autobusak jarri zituzten Zumaiara eramateko. Gerora, gure umeak Oikiara joan dira; Basakartekoak eta Artadi bertakoak, aldiz, Zumaiara”, dio Rafaelek.

Artadiko eskola ez zen hutsik geratu klaseak emateari utzi bazitzaion ere. “Zumaian ikasketak ematen zituen maistra bat bere familiarekin bizi zen han, Zumaian haientzat lekuri ez zegoelako. Senarra hil zitzaion, eta kurtsoa amaitu eta berehala Asturiasera itzuli zen seme-alabekin. 1980ko hamarkadaren hasieran izango zen. Beste irakasleek ez bezala, hark ez zuen euskaratzeko asmorik erakutsi. Ez zuen nahi”, gogoratu du Rafaelek.

Familia hura joan eta denbora batera, Castor Agirrezabalaga alkate zela, Joxe Manuel eta Matilde Etxabe anai-arrebak bizi izan ziren bertan, sei bat urtez. Sanmigelzar baserrikoak ziren eta etxea erre zitzaizenean, eskolan bizitzeko aukera eman zitzaion.

Gerora, Artadiko elkartearen biltegia ere izan zen, eta 2004. urtean Ander Hormazuri eta Keixeta artisten estudio edo lantoki bihurtu zen. Ordainetan, bertan ezarri ziren komun publikoek arduratu behar zituzten asteburutan, jaiegunetan eta udako hilabeteetan. Lau urterako kontratua sinatu zuten Udalarekin eta, Anderren esanetan, “dena ondo zihoan” Artadin egitekoak ziren etxebizitza familiabakarreko eta txaleten obrek eragindako dardarek paretetan pitzadurak sortu zituzten arte. Denborarekin, etenak zabaltzen joan ziren eta 2007ko ekainean atzealdeko horma erori zen. Bi artistek egun batzuk lehenago utzi zuten etxea, Udaleko arkitektoak hala aginduta.

Ordutik, bost urte luzez abandonatuta egon da etxea. “Okupak’ ere izan ditugu denbora batean. Azkenekoak orain urtebete inguru joan ziren, arazorik sortu gabe, baina haien aurretik egon zirenak botatzeko ertzainei deitu behar izan zieten. Horregatik esaten nien etxea botatzeko, azkenaldian mina hartzeko besterik ez zuen balio eta”, dio Rafaelek.

Irailaren 3an hasi zen hondeatzeko makina lanean. Bi eguneko lanaren ondoren, atariko pilarea besterik ez da geratzen zutik. Hori eta sei zatitan banatuta atera zuten armarrira. Beste guztia lurrarekin berdinduta geratu zen. ■



## Eskola zaharreko azken maizterrak

Eskola eta etxe baten beharra zutenen bizilekua izan eta gero, eraikina arte leku bihurtu zen 2000ko hamarkadan. “2004an lana egiteko lokalik gabe geunden, Zelai-azpi itxi zenean. Udalarekin harremanetan jarri ginen eta Artadiko eskola zaharrean sartzeko aukera atera zen. Garai hartan Artadiko elkarteak erabiltzen zuen biltegi bezala, eta gu sartu aurretik emakume bat ere bizi izan zen han. Garai berean eskolan komun publikoak jartzeko asmoa zuen Udalak. Esan daiteke dena batera egokitu zela”, du gogoan Ander Hormazurik.

Keixetak eta Anderrek lan egiteko lekua aurkitu zuten Artadin. “Art-adi izeneko proiektu bat ere aurkeztu genion Udalari”. Alokairu bezala, eskolako komun publikoek arduratu behar zuten. “Komunak asteburuetan, jaiegunetan, udan uztaila eta abuztuan eta une puntual batzuetan zabaldu behar genituen, eskoletako haurrak igotzen zirenean, adibidez. Horien mantenamenduaz ere arduratzen ginen. Horretaz gain, balio zehatz bateko artelanak eman behar genizkion Udalari. Lau urterako akordioa sinatu genuen eta gustura geunden”.

“Fumigatu genuen, txukundu eta fatxada ere margotu genuen”

Etxean sartu zirenean oso zikinik aurkitu zutela gogoratzen dut. “Arkakusoz josita zegoen. Fumigatu genuen, txukundu eta eskolaren fatxada ere margotu genuen. Urteetan zehar itoginekin arazoak ere izan genituen, eta Keixeta aritu zen teiltua konpontzen. Behin Maria Eugenia [Arrizabalaga, legegaldi hartan Zumaiako alkatea] etorri zen eta lekua ikusita muturra okertu zitzaion. ‘Hemen geratu nahi al duzue?’, galdetu zigun. Gu gustura geunden lan egiteko leku bat izanda”. Arazo horietaz aparte, etxea nahiko egoera onean zegoela dio Anderrek. “Pitzadura txiki batzuk bazituen, baina hori normala da adin horretako etxe batean. Benetako arazoak obren hasierarekin sortu ziren”.

2007an hasi ziren Artadiko promoziozko etxebizitzak eraikitze lanak eta makina hondeatzaileek eragindako lanen ondorioz, pitzadurak agertu ziren eskolako hormetan. “Nik lan egiten nuen gelan agertu ziren eta denborarekin handitzen joan ziren. Ekainean izan zen hori. Pegatinak ere jarri nituen etenetan ikusteko zenbat ari ziren zabaltzen. Ez ziren dardarak bakarrik. Hondeatzeko makinak etxearen azpian bertan ari ziren lanean, lurra kentzen. Etxeak ez zuen euskarririk, eta noski, azkenean horma erori egin zen. Nabarmen geratu zen [Udalak] lehentasuna eman ziela obrei eta ez etxeari. Obra horiek egin ez balira, etxeak tente jarraituko zuen. Hainbeste urtean zutik egon bazen, obrarik izan ez balitz beste hainbestean irauko zuen”, dio Anderrek.

Artadiko egonaldia bukatuta, Alondegri zaharrean aurkitu zuten lan egiteko leku berria. “Hura ere erortzekotan zegoela esan ziguten”, dio ironia puntu batekin. Baina hori beste istorio bat da.



# URBERU sagardotegia

Elorriaga auzoa - ITZIAR  
Tel. 943 199 237

Etxeko  
espezialitateak:  
haragia eta arrainak  
parrillan.




## Galdona

### denda:

Mendaro marinela, 1  
tel.: 943 143 346

### biltegia:

Jose M<sup>a</sup> Korta Industriegunea  
Pab. A6.1, 2-5 mod.  
tel.: 943 861 117  
fax: 943 861 330



industriarako nahiz etxerako  
era guztietako material, tresna, pieza eta osagarriak





# Sukalde eta bainugelan BERRIKUNTZAK

Inoiz izan diren prezio onenetan.

- ✓ Gremio guztiak ditugu eta geuk koordinatzen ditugu.
- ✓ Konpromiso gabeko aurrekontua:  
**ESKATU BELDURRIK GABE.**
- ✓ 40 urtetik gorako ibilbidea bezeroen nahia betetzen.



**ENDAÑETA ZUMAIA  
ELEKTROGAILUAK**

Erribera, 8 Tel. 943 861 694  
www.endanetazumaia.com



Iraila eta urrian  
onartutako  
aurrekontuek

**19" Led  
telebista  
OPARI**

**Gogoratu!**

*Endañeta: aurrena arreta, gero salmenta.*



iPlazaola

HORTZ KLINIKA | CLÍNICA DENTAL



Odontologia Orokorra  
Ortodontzia  
Implanteak  
Periodontzia  
Protesia



*Hobeto sentituko zara!*

Kol. zk. 829  
Harategiko kalea 1, behea-A  
(Ardantzabidetik Sartuta 4. Solairua)

Tel. 943860247  
[www.iplazaola.net](http://www.iplazaola.net)

# FLYSCH PINTXOA

Dasta ezazu  
Zumaiako  
pintxo berria



zumartian